

Haurreskolan izen-ematea bihar arte

Eskualdeko hamar
herritan eskaintzen dute ▶ 5



Tolosa futbol taldeak igoera pauso batera dauka Irunen irabazita

LAU PUNTU ▶ EHUK berdinketa
besterik ez zuen lortu Azkoitin eta
orain lau puntutara dago


BERAZUBIRA ▶ Larunbatean
Berazubin Anaitasunari irabazten
badio, 3. mailara igoko da taldea ▶ 2

TOLOSA ▶

Bolada ona hautsi du Hegoaldek Madrilen

Kettal-Fuenlabradak
4-2 irabazi zion
larunbatean ▶ 3

ALKIZA ▶



HITZA

Eskultura alkate ohiaren omenez

Antonio Zubiaurre
zena omendu dute
asteburuan ▶ 3

BERROBI ▶

Hasi da Kultur Astea ekitaldiz betea

Gaur, sukaldaritza
erakusketa ▶ 7



Amaitu dira Izaskungo jaiak, euriak bustita

IBARRA ▶ Atzo bukatu ziren Izaskungo jaiak eta azken egunean euriaren bisita izan zuten, jende askorekin batera. Larunbatean sokatiran Hauspoa taldeak irabazi zuen. Igandean herri kiroleetan talde txuria izan zen garaile. Bazkaria, bertsolariak eta trikitilarien ondoren asto lasterketa izan zen, Iñaki

Larrarterenak irabaziz. Atzo berriz, diana, hamaiketakoa, Peñagarikano eta Lizaso bertsolariak, Potxin eta Patxin pailazoak eta Alurr dantza taldeko gaztetxoek saioa —argazkian— izan ziren. Aurtengo Izaskungo jaiak erromeria batekin bukatu ziren iluntzean. IÑIGO TERRADILLOS ▶ 6

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakumezkoen
Ohorezko Maila.

Ketall Fuenlabrada-Hegoalde 4-2
Saillkapena ▶

1. Femesala Elx	73 puntu
2. Navalcarnero	65 puntu
3. Zaragoza 2002	54 puntu
4. UCAM Murtzia	50 puntu
5. Preconte Telde	49 puntu
6. Tecnocasa Mostoles	47 puntu
7. Fuenlabrada	46 puntu
8. Ourense	37 puntu
9. Soto del Real	36 puntu
10. Gironella	35 puntu
11. Hegoalde Tolosa	34 puntu
12. Rioja Diamante	32 puntu
13. Goierri	20 puntu
14. Arturo Eyries	18 puntu
15. Valdetires Ferrol	13 puntu
16. Cabanyal Valencia	8 puntu

1. Maila A.

Ibarra-Burlata 5-4

ESKU PILOTA

HITZA
TXAPELKETA

Alebinak.

Apeztegia-Arizmendi / Ansa-Aburuza	16-10
Zabala-Orbegozo / Maiza-Manterola	10-16

Etxeberria-Arozena / Eizagirre-Uranga	16-12
Jaunarena-Olano / Argote-Zinkunegi	16-07

Benjaminak.

Untxalo-Elizalde / Sueskun-Gorostidi	16-01
Aizpuru-Arrue / Barandiaran-Sarriegi	16-11
Altuna-Otamendi / Merino-Arrieta	16-12
Gil-Sagastibeltza / Arruti-Unzalu	16-03

Infantilak.

Bereau-Madariaga / Elola-Galarraga	18-13
Aizpuru-Etxaniz / Labaka-Otaegi	18-01
Jaunarena-Bera / Gaztañaga-Aizpurua	18-08

Etorkizunekoak.

Etxeberria-Kantxo / Agirrezabala-Alkorta	22-07
Pastrian-E. Galarraga / Loiarde-Erarte	14-22
Armendariz-Astiz / Unanue-San Sebastian	22-16
Beobide-Esnaola / Pikabea-Mixelena	22-16

FUTBOLA

Gorengoen Maila.

Real Union B-Tolosa	1-2
Saillkapena ▶	
1. Tolosa	79 puntu
2. UPV/EHU	75 puntu
3. Ordizia	64 puntu
4. Zaratuz	61 puntu
5. Real Union B	59 puntu
6. Trintxerpe	51 puntu
7. Mondragon	49 puntu
8. Aloña Mendi	48 puntu
9. Pasajes	47 puntu
10. Mutriku	46 puntu
11. Zestoa	46 puntu
12. Arexabaleta	44 puntu
13. Touring	44 puntu
14. Hondarribia	44 puntu
15. Anaitasuna	43 puntu
16. Orioko	43 puntu
17. Urola	39 puntu
18. Beti Gazte	38 puntu
19. Bergara	36 puntu
20. Oiarzun	24 puntu

Nesken Liga.
Igoera fasea.

Tolosa-Mutriku 2-5

Lurraldeko 1. Maila.

Roteta-Tolosa B	3-3
Saillkapena ▶	
1. Irun 1902	64 puntu
2. Allerru	62 puntu
3. Euskalduna	55 puntu
4. Beti Ona	54 puntu
5. Ostadar	48 puntu
6. Vasconia	45 puntu

7. Martutene	45 puntu
8. Lengokoak	42 puntu
9. Behobia	42 puntu
10. Roteta	42 puntu
11. Astigarragako	40 puntu
12. Mariño	34 puntu
13. Gure Txokoa	30 puntu
14. Amara Berri	26 puntu
15. Ordizia	23 puntu
16. Tolosa B	20 puntu

FUTBOL 7

1. Maila A.

Ibarrako GA-Ekin Fisiot.Zentrua 2-3
Saillkapena ▶

1. La Kabutzia	30 puntu
2. Perku taberna	28 puntu
3. B. Ignacio-Hondarribia	27 puntu
4. Zibibibo Dance Club	25 puntu
5. Knauf Dec. Nuñez	24 puntu
6. Zuma G.H.	21 puntu
7. Robers	21 puntu
8. Ibarrako Gazte Asanblada	18 puntu
9. Zardoya Otis	17 puntu
10. Kroms	16 puntu
11. Xalao Orio	13 puntu
12. Bataplan	13 puntu
13. Easo Motor	11 puntu
14. Disco Bar Egur	9 puntu
15. Ekin Fisioterapia Zentroa	6 puntu
16. Callejo-Lanperna	4 puntu

2. Maila A.

Lanbroa Dickens-Buenavista jate. 6-2
Saillkapena ▶

1. Lanbroa Dickens	35 puntu
2. Pub Oasis	31 puntu
3. Cesar Rueda Seguros	26 puntu
4. Ikena	23 puntu
5. Bereziartua sagardoa	22 puntu
6. Edificios Estevez	21 puntu
7. Renta 4	19 puntu
8. Cristaleria Langlass	18 puntu
9. Buenavista jatebea	15 puntu
10. Rock Star	15 puntu
11. Ron Cartavio	14 puntu
12. Hispavista.com	13 puntu
13. Zuriburri	12 puntu
14. Depueblo.com	9 puntu
15. Zihurko	8 puntu
16. Akelenea sagardotegia	7 puntu

2. Maila B.

Bar Shanti Kirolak-Callate la boca 1-7
Saillkapena ▶

1. Amazkar taberna	34 puntu
2. Trinkete ibaeta	31 puntu
3. Jalgi Kafe Antzokia	31 puntu
4. R. Izkiña-Pasaia	27 puntu
5. Prudey	23 puntu
6. Rotulek.com	20 puntu
7. Fermax Instalaciones GC	20 puntu
8. Pub Egari	17 puntu
9. Bar Shanti Kirolak	16 puntu
10. Irish Guinness	15 puntu
11. St. Etienne Cafe Bar	14 puntu
12. Taberna Dani	14 puntu
13. Callate la boca	10 puntu
14. Nu team	10 puntu
15. Emaus Sports	8 puntu
16. Centro Cultural Aleman	5 puntu

TOLOSA ▶ FUTBOLA

LEIRE MONTES

Datorren jardunaldian, Bera-zubin, zaleen aurrean, lortu dezake Tolosak 3. mailarako igoera. Anaitasunaren kontrako partida irabazten badu, mailaz igotzea ziurtatuta dute urdinek. Izan ere, asteburuan Real Union B taldeari 1-2 irabazi dio Tolosak; UPV-EHUK, berriz, husna berdindu du Anaitasunaren kontra, Txerloian. Hala, Tolosak lau puntuko alde ateratzen dio orain EHUri: larunbatean irabazten badute, Ligako txapeladunak izango dira urdinak, eta 3. mailan ariko dira datorren denboraldian. Horrela berdindu izango dio donostiarrek Oriokoren aurka irabazten ala galtzen duten. Ligako azken partidak Tolosa eta EHU jarriko ditu aurrez aurre; eta, beraz, lau puntuko alde nahikoa dute Tolosakoeko igoera ziurtatzeko.

Itxaropentsu eta pozik dira jokalaririk, taldeko ordezkariak eta zaleak. Orain arte lortutakoarekin, eta oraindik eskuratu dezaketenearekin. Baita egindako joko onarekin ere. Larunbatean ere, nagusi izan ziren urdinak Gal zelaian. Kontzentrazio handiz eta zelaian ondo kokaturik aritu ziren. Atsedenddirako 0-1koa sartu zuten Sagastibeltzak.



3. maila, pauso batera

Datorren jardunaldian Anaitasunaren kontra irabazten badu, 3. mailara igotzea lortuko du Tolosak; izan ere, asteburuan irabazi egin du, eta EHUk berdindu

Baina Real Union ez zen koldu, eta arriskuko jokaldiak ere sortu zituen. Partida bizia eta gol aukera askokoa izan zen larunbatekoa. Bat-batean, luzapenean, banako berdinketa lortu zuten irundarrek, Aizpuruaren golarekin. Puntu bakarra etxera eramatea gutxitxo zen Tolosakoentzat, eta azken minutuetan gogo biziz aritu zi-

ren urdinak. 93. minutuan sartu zuten Lasak zorameneko 1-2koa: zutoinean jo zuen buruz errematatutako baloiak, baina zuzenean sare artera sartu zen, urdinen zorionerako.

Zaleei dei egin diete berriro Tolosakoek datorren jardunaldian Berazubira joan daitezen. Haiekin ospatu nahi dute hainbeste desiratutako igoera.

REAL UNION B ▶ 1

TOLOSA ▶ 2

Real Union B. Arabaolaza, Berasaluze (Fernandez, 73m.), Zugarramurdi, M. Perez, Ibañez (Lasaga, 76m.), Aizpurua, Idarramendi, Torres, Azpiroz (Urtizberea, 81m.), Del Rey (Apaolaza, 81m.) eta A. Perez (Arregi, 61m.).
Tolosa. Apeztexea, Sagastibeltza (Aierbe, 38m.), E. Garmendia, I. Garmendia (Blanco, 53m.), Romero, Artola, Orue, Prados, Lasa, Elola (Lacalle, 53m.) eta Zuloaga.
Golak. 0-1: Sagastibeltzak (37m.); 1-1: Aizpuruak (91m.); 1-2: Lasak (93m.).

ARETO FUTBOLA ▶

Bolada onari eutsi ez, eta galdu egin du Hegoaldeak Madrilen

Kettal-Fuenlabradaren aurkako norgehiagoka jokatu zuen larunbatean, eta 4-2ko emaitzarekin itzuli ziren etxera

IRATXE ETXEBESTE

Azkenaldiko bolada onari agur esan zioten Hegoalde areto futbol taldeko jokalariek larunbatean. Izan ere, Kettal-Fuenlabrada taldearen aurka aritzeko Madrilgo herri horretara egin zuten bisitatik 4-2ko emaitzarekin bueltatu ziren herrira. Ligako bigarren itzulia hasi zenetik izugarriko maila ari da erakusten Kettal-Fuenlabrada taldea; bost partidu jarraian irabazi ditu, eta Hegoaldekoen hitzetan, haien entrenatzaileak —Ricardo de Souza brasildarra— egiten duen lanari esker da hori.

Arratsaldeko zazpietan hasi zen neurketa, eta iluntzea izanagatik «bero handia» egiten zuela esan dute tolosarrek: «Aireztapenik gabeko eta izugarri kargatutako lekuan jar-

dun behar izan genuen, eta horrek asko mugatu zigun lasterka egiterakoan, eta baita jokaldiak pentsatzerakoan ere». Gripeak jota ziren, gainera. Isa Barrio, Itziar Aldezabal eta Naiara Mayo Hegoaldeko jokariak, eta normalean baino zailtasun handiagoa izan zuten norgehiagoka jokatzeko.

Hala, zentzurik gabe hasi zen neurketa. Dantzan zebilen baloia kantzaren erdialdean batetik bestera, eta gol aukera handirik ez zen izan bi taldeen zatit. «Baloia jabetza eta partiduko denbora etxekoan alde zuden, baina, hala eta guztiz ere, ahaleginak egin gunituen aurkariak presionatzeko eta haien nazioarteko atezain Vanesa Barberori beldurra sartzeko, kontraerasoan, Lorena Martinek lehen gola sartu zuen arte».

Hegoaldekoek gol aukerak izan zituzten ordurako, baina kantzaren ohiko duten abiadurarik ez zuten lortzen, eta jokaldi onak eginagatik ez zuten baloia sare artera bidaltzen jakin. Kettal-Fuenlabradako atezainak gogor aldendu zuen atetik Maider Lopez bitan, eta arbitroek ez zuten faltarik adierazi; bestelakoan, tolosarrek bi penalti jaurtitzeko aukera izango zuket.

Atsedenaldira, 2-lekoarekin

2-1ekoa adierazten zuen markagailuak atsedenaldira heldu zenean. Itziar Aldezabalek sordutako jokaldi izugarriari Nerea Salazarrek eman zion bukaera gol ikusgarriarekin. Bigarren zatia hastean presio handiagoa egin zuten Tolosakoek, baina presio handiagoa egiten zuten heinean hutsegite handiagoak ere egiten zituzten defentsan, eta horrek aukera eman zien etxekoei segidan bi gol sartzeko; handik aurrera «partidua bila joan ginen». Berehala, kantzatik kanpora bidali zuten epaileek Maider Lopez bi txartel hori adierazita. Markagailuari buelta ematea ezinezkoa izan zen.

Datorren partida Berazubini jokatu dute Hegoaldeko jokalariei larunbatean, Ourenseren aurka, 19:00etan.

TXIRRINDULARITZA ▶

Gipuzkoako Txapelketa irabazi du Josu Agirrek

Ziklista tolosarra ez dago sasoi betean; hala ere, 20. kilometrotik heldu zion ihesaldiari



Josu Agirre txirrindulari tolosarra, lasterketa batean. I. TERRADILLOS

I. ETXEBESTE

Josu Agirre, Bidelan taldeko txirrindulari tolosarra irabazi du txirrindularitzako elite mailako Gipuzkoako Txapelketa, eta Iban Iriondo (Seguros Bilbao) izan da garaile 23 urtez azpikoan artean. Ezustekorik ez du eman Bidelan taldeak Gipuzkoako Txapelketa irabazita. Hala ere, Bergaran izandako proban Agirre gailendu izanarekin bat baino gehiago harritu zen, batez ere txirrindulari tolosarra ez dagoelako sasoi betean. Denboraldiko lehen proba irabazi du igandekoarekin Josu Agirrek.

Oso prestatuta ez zegoela zioen tolosarrek berak lasterketari ekin aurretik. Probaren hasieratik erakustaldi bikaina egin zuen, ordea, eta azken unera arte iraun zuen horrek.

116 kilometro osatu behar zituzten ziklistek, eta hastapen-hastapenetik hasi zen ihesean Agirrek. Velascok, Irazuk, Alonsok (Bidelan),

Aseginolazak, Larreak (Telco m), Romerok, Gonzalezek, Iruretagoienak (Debabarrena), Garatek (Belca), Iriondok (Seguros Bilbao), Gonzalezek (Bruesa), Eizagirrek, Rotetak (Caja Rural) eta Agirrek (TKV) osatutako taldea. 20. kilometro inguruan. Tropelean, Azy-sa taldeari egokitu zitzaion lana egitea, Udana eta Asentzio gainak hasi baino lehen Vazquezek ahalik eta denbora gutxien galtzea nahi zuelako.

45 segundo eta 1,15 minutu arteko aldea atera zioten iheskideek tropel nagusiari. Udandiko lehen proba irabazi du igandekoarekin Josu Agirrek. Oso prestatuta ez zegoela zioen tolosarrek berak lasterketari ekin aurretik. Probaren hasieratik erakustaldi bikaina egin zuen, ordea, eta azken unera arte iraun zuen horrek.

116 kilometro osatu behar zituzten ziklistek, eta hastapen-hastapenetik hasi zen ihesean Agirrek. Velascok, Irazuk, Alonsok (Bidelan),

K. FUENLABRADA ▶ 4 HEGOALDE ▶ 2

Kettal Fuenlabrada. Vanesa Barbera, Ana B. Duque, Laura Faez, Teresa Sanz eta Virginia Fernandez —hasierako bostekoa—; Ana Cabeza, Rocio Extremera, Lorena Martin eta Natalia Flores. Entrenatzailea: Ricardo de Souza.

Hegoalde K.E. Nerea Arana, Isa Barrio, Nerea Salazar, Maider Lopez eta Miriam Arana —hasierako bostekoa—; Edure Agirreke, Amaia Azpillikueta eta Naiara Mayo. Entrenatzailea: Maite Argote.

Golak. 1-0: Lorena Martinek (8m.); 2-0: Natalia Floresek (14m.); 2-1: Nerea Salazarrek (16m.); 3-1: Natalia Floresek (23m.); 4-1: Lorena Martinek (32m.) eta 4-2: Nerea Salazarrek.

Arbitroak. Jose Cañizares eta Carlos Rodrigo.

ARETO FUTBOLA ▶

Laskorain ikastolako infantil mailako nesken taldea, Gipuzkoako txapelkun

Donostiako Axular Lizeokoei 5-0 irabazi zieten neskek larunbatean

I. ETXEBESTE

Laskorain ikastolako infantil mailako nesken taldea Gipuzkoako txapelkun geratu da areto futbollean, Donostiako Axular Lizeokoei finalean 5-0 irabazita. Donostiako Gaska kiroldegian jokatu zuten final

handia tolosarrek eta donostiarrak elkarren aurka larunbat goizean, eta oso ondo aritu ziren bi taldeetako jokariak. Donostiarrak azpitxapelkun geratu dira, eta, beraz, ez dute lehian aurrera egiteko aukerarik. Laskorain ikastolako neskek, ordea, Euskadiko Txapel-

keta dute hurrengo erronka. Oraindik ez dakite noiz, non eta noren kontra jokatu duten txapelketako neurketa; hala adierazi dute Laskoraingo Guraso Taldekoek, baina, orain arteko norgehiagoka guztietan bezala, maila bikaina erakutsiko dute, ziur.



Laskorain ikastolako infantil mailako jokariak, garaiurrarekin. HITZA

GUTUN@K ▶



izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Herriko jaiak eta 'apartheid'-aren urtemuga

Aurten jaiak urtemuga jakin batekin egokitzen dira. Orain bi urte Euskal Herriko hainbat udaletan bezala, Anoetan ere, PNV/EAK *apartheid*-a ezarri zuten Udalean. Jakin bazekiten hainbat urtetako lanaren ondorioz Anoetan ezker abertzalea ondo txertatua dagoela eta ezin izango zutela herrian bazterketa hori gauzatu. Hori garbi bazegoen ere beraien interes pertsonal eta alderdikoiek itsutu, eta erabaki hori hartu zuten ezker abertzalea betirako Udalean eta herrian bazter-

tu asmoz. Ondorioz garbi geratu da Anoetako PNV/EA udal taldea inongo inizatibarik eta ekimenak aurrera ateratzeko babesik gabe dagoela herritarren aldetik.

Hori bera esaten du alkateak, Udalaren festa egitarauko agurrean, hainbat eragilek festa alternatiboak antolatzeaz kezaturik. Festak antolatzeko garaian Udalaren irekitasuna adierazten du, baina herriko eragileok irekitasun hau urte guztian edukitzea exigitzen dugu.

Erabaki guneetan partaide izan behar dugu herritarrek hala aukeratu zutelako eta herriak horrela nahi duelako. Ez diezagutela elkarlanik eskatu guri lapurtutako 4 zinegotzi

karguak beraiek dauzkaten bertan.

Datozen festa hauetan, gure bazterketa salatu eta aldarrikapenak kaleratzeaz gain, herritar guztiok egun alaietz gozatzeko parada ere izan behar dugu. Horretarako aurkeztu zaigu herri borondatearen aldeko jaien egitaraua. Hor bai dagoela herritarren partehartze zabala, adin guztietako jendea herri antzerkian, sega apustuan, bertso afari herrikoia, gazte mordoak plazan dantzatzen...

Honen aurrean zer jarrera du Udalak? Oztupoak jartzea. Herritarrek herritarrentzat antolatutako jaiak nonbait ez dira Udalaren gogoko.

Anoetarrok Auzolanean pla-

taformak batetik eskerrak eman nahi dizkie urte osoan zehar ekimen ezberdinak antolatzen eta herri borondatearen aldeko jai hauek aurrera ateratzen lagundu duten norbanako eta eragileei, batez ere gazte asanbladari. Bestetik guztiei gonbitea luzatzen dizuegu, bazterketaren aurka eta konponbidearen aldeko deialdiei tan parte har dezazuen, jaiak eta borroka uztartuz egun alaiak igaro ditzagun.

Ea laster iristen den berriro kukuak anoetar guztiontzat kantatuko duen eguna.

Apartheid-ari ez! Gora herri borondatearen aldeko festak!

JOSE MARI URKOLA ETA EIDER

GARMENDIA (ANOETARROK

AUZOLANEAN-EN IZENEAN) ▶ ANOETA

ALKIZA ▶ GIZARTEA

Zubiaurreri omenaldia

Alkate ohiaren omenez parkean eskultura bat jarri zuten baserriarren egunean

IMANOL GARCIA

«Urte askotan alkate izan zen eta pentsatu genuen omenaldi bat egin behar geniola». Horrelaxe azaldu dio Jon Roteta Alkizako alkateak HITZARI, Antonio Zubiaurreri egindako omenaldia arrazoitzean. 25 urtetan izan zen Udalean Zubiaurre, horietatik 21 alkate moduan bete zituen, aurreko urteko urriaren 12an zendu zen arte.

Herenegun, baserriarren zaindaria den San Isidro egunean, egin zuten ekitaldia. «Baserriko semea zen ere Antonio eta horregatik omenaldia San Isidro egunean egitea iruditu zitzaigun», azaltzen du Rotetak. Mezarekin hasi zen eguna eta ondoren, elizaren ondoko parkean egin zen omenaldia. Koldobika Jauregik egindako eskultura jarri zuten Zubiaurre gogoratuz eta parkeari alkate



Dantzariak aureskua dantzatu zuten alkate ohiaren omenez jarritako eskulturaren aurrean. HITZA

ohiaren izenarekin izendatu zen. Ondoren, aureskua dantzatu zuten eskulturaren aurrean. Jende ugari bildu zen eki-

taldi xume bezain hunkigarrian.

Omenaldia bukatu ondoren 135 bat lagun izan ziren pilota-

lekuan egindako bazkari herrikoian. Bazkalostean, trikitixaren musikak jarri zuen giro alaiak egunarekin amaitzeko.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Asteasu. Txalet eraiki berria. Ezin hobe. Lurra, garajea eta trastelekua. Etxesagasti 943 69 68 56.

Irura. 3 logelako eta 2 bainugelako etxe erdiberrita. Polita. Egoera ezin hobean. Garajea eta trastelekua. 49.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.

Tolosa. Logela bakarreko etxebizitza polita terrazaz handiarekin. Etxesagasti 943 69 68 56.

Villabona. 72 m². Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. Trasteleku handia.

Etxesagasti. 943 696 856.

Villabona. 3 logelako etxebizitza polita guztiz eraberritua. Kanpoaldera. Trastelekua. Garajea.

Etxesagasti. 943 696 856.
Zizurkil. Aukera! Erabat eraberritutako etxebizitza bi logelarekin. Dena kanpoaldera. 33.800.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.

Zizurkil. 3 logelako etxebizitza. Erdi eraberritua. Iggogailua. Trastelekua. 36.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.

Zizurkil. 95 m²-ko etxebizitza ederra. 3 logela. Kanpoaldera. Balkoiak. Egoera onean. Etxesagasti. 943 696 856.

Zizurkil. Familiabakarreko baxleta lursailarekin. Egoera onean. Kokaleku oso ona. Etxesagasti. 943 696 856.

Eskaera handia dela eta, etxebizitzak, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmantan. Itxaron zerrrenda dugu.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitxaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Morant, R. Zabalarreta 1 (Tolosa). 943 67 38 49.

Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Beasainen etxea
salgai: Deitu: 619 60 11 11.

HEZKUNTZA ▶

Bihar amaitzen da haurreskolen matrikulazio epea

Tolosaldeko hainbat herritan daude haurreskolak; hezkuntza 'zuzenaren' aldeko apustua egiten dute denek



Eriak primeran igaro zuen atzoko goiza Orendaingo haurreskolako jolasgelako jostailuekin. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Bihar amaituko da eskualdeko herri guztietan 0 eta 3 urte bitarteko haurtxoak matrikulatzeko epea. Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Berastegi, Elduain, Irura, Lizartza, Orendain, Villabona eta Zizurkil dira, hain zuzen, haurreskolak dituzten herri hauek. Leitzan ere badute eta aurrematrikulazioa iragan apirillean amaitu zen, plaza guztiak bete zirelarik.

Batzuk informazio kanpaina bat bideratu dute egun hauean zehar; besteek, aldiz, aurreko urteko umeekin jarraitzea dute helburu. «Herriko gurasoekin hitz egin dugun», adierazi du Miren Egunez Orendaingo

PLAZAK ▶

KOPURUAREN ARABERA

Hamar plaza. Anoetan, Asteasun, Baliarrain, Berastegin, Elduainen, Iruran, Lizartzan eta Orendainen.

21 plaza. Zizurkilgo Kuttuna haurreskolan.

42 plaza. Leitzan.

68 plaza. Villabonan.

haurreskolako hezitzaileak. Herri txiki gehienetan bezalaxe, Orendainen ere ume gutxi izatearen arazoa dute. «Oraingoz bi ume baino ez ditugu datorren urterako, gertatuko denaren zai gaude, beraz». Hala-

ber, inguruko herriko umeak ere haurreskolara eramateko aukeraren garrantzia azpimarratu nahi izan dute. Horrela, «egungo umeak, Janitz eta Erika, Amezketatik eta Abaltzisketatik datoz», adierazi du Eguenezek. Orduetgia ere malgua izaten dute gehienetan haurreskoletan, eta «guraso eta haurren beharren arabera» moldatzen dute. Bien bitartean, istorioaren protagonista nagusiak, hau da, umetxoak, «oso gustura» egoten direla esan du hezitzaileak, bertan bazkaria eta siesta ere egiten dituztelarik. Herri txikietan jaso dezaketan harrera «kalitatekoa eta gertuagokoa» dela ere nabarmendu du.



Lasatar txikiak txapeldun

ALEGIA ▶ Iragan hilabetean Oria errekan eginitako txapelketetan Alegiako bi anaia hauek izan ziren irabazleak. IX. Ziprinidoen Txapelketan Beñat Lasak irabazi zuen infantiletan, bai eta barborik handieneko sarian ere. Enekok berriz, alebinen mailako eta amuarrainen txapeldunordearen sariak eraman zituen etxera. Guztira 160 partaide izan ziren eta Ibarako zubitik Tolosako Gorritiko zubira bitarteko tartean garatu zen Lasa anaia irabazi zuten txapelketa. HITZA

IBARRA ▶

Txosna batzordeko bilera bihar 20:00etan

Bihar txosna batzordeko bilera egingo dute Ibarako Benito Izagirre kultur etxean. Hitzordua 20:00etan izango da, eta ekainean egingo dituzten Gazte Festetarako antolaketa burutzea du helburu. Herriko talde eta elkarte guztien parte-hartzea eskatzen dute.

IBARRA ▶

Lapurreta egin dute Euskadiko Kutxan

Atzo goizean lapurreta bat izan zen Ibarren, Euskadiko Kutxaren sukurtsalean, 60.000 euro eramanez. Pistolarekin armatutako pertsona bat sartu zen egoitzara, barruan langile bat zegoela, eta hura erretentituta edukitu zuten segurtasun sistemak kutxa irekitzen utzi zion arte.

PILOTA ▶

HITZA txapelketako partidak bihar

HITZA txapelketako norgehiagoka gehiago jokatu ditzate bihar eta etzi. Bidarian ariko dira bihar kadeteak, 18:30etik aurrera. Guztira lau neurketa izango dira jokoan; elkarren aurka jokatu dute Esnaola eta Fernandez, Errazkin eta Jaunarena, Artola eta Ezeiza eta Ibarguren eta Alduntzin pilotariak. Etzi ere izango da Tolosako Beotibar pilotalekuan, 21:30ean, etorkizuneko mailako binakako partida bat. Etxebeste eta Huarte bikotea eta Urmeneta eta Aranalde ariko dira aurrez aurre.

TOLOSako INMACULADA IKASTETXEA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Erizaintzaren Laguntza
- Farmazia

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Diagnosi Irudiak
- Osasun Dokumentazioa
- Giz Integrazioa

AURREMatrikula: Ekainak 8 arte.
Tfnoa: 943 67 36 29 www.inmakuladatolosa.com

Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bitartez, 800 enpresa, ikastetxe, denda, jatetxe... eta era guztietako erakunde bakoitzak euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

www.bai.euskarari.org

Bai Euskarari Ziurtagiria!

902 430026

Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!

hitza

IBARRA ▶ IZASKUNGO JAIAK

Euriak bustita amaitu dira auzoko festak

Atzo eman zieten amaiera jaiiei; jende asko izan da hiru egunetako festetan

IÑIGO TERRADILLOS

Larunbatean hasi eta atzo amaitu ziren Izaskungo jaiak. Atzokoan izan ezik eguraldiak lagundu du, eta jende asko gerturatu da antolatutako ekitaldiez gozatzera.

Larunbateko sokatirarekin batera hasi ziren Izaskungo jaiak. Izaskungo taldea, Hauspoa elkarte eta Urnietatik etorritako taldea lehiatu ziren eta Hauspoak irabazi zuen. Ondoren afarian bildu ziren erromeria eta guzti.

Igande eguerdian herri kirolak izan ziren eta jende asko hurbildu zen ikustera. Txinga eta kokkola probak, segan, aizkoran, harri jasotzen eta korrika lehiatu ziren besteak beste. Izaskundarrek bi taldetan banaturik —txuri eta beltz— hartu zuten parte. Proba guztiak amaitzen lehenak txuriak izan ziren. Sari banaketa egin eta gero saskia zozketatu zuten eta 11. serietako 183 zenbakia izan zen irabazlea, hau da, Ainhoa Otañorena. Ermita ondoan jarritako karpan bazkaria egin zuten ondoren Peñagarikano eta Irazu bertsoariak alaiturik. Arratsaldean, trikitalarien ostean asto lasterketa izan zen ikusgai. Launaka hiru lasterketa egin ziren lehendabizi eta lasterketa bakoitzeko hiru irabazleak pasa ziren finalera, eta azkenean Iñaki Larrarteren astoa izan zen txapelduna. Gauean Etxabe anaien doinuek jarri zuten jai giroa.

Izaskungo jaietako azken eguna izan zen atzo, eta goizean goizetik hasi ziren ekital-

diak. Trikitalariek lagunduta diana izan zen eta ondoren meza. Eguerdian hamaiketako herrikoia egin zuten. Eta bertsolariak ere ez ziren falta, bertan aritu baitziren Peñagarikano eta Lizaso.

Haurrentzako ekitaldiak izan ziren nagusi atzo arratsaldeko egitarauan. Potxin eta Patxin pailazoan ikuskizunaz gozatu ahal izan zuten, eta baita berarentzat prestaturiko askariak ere. Tartean, euriaren zalan-tzak medio Ibarako Alurr dantza taldeko gazteboen saioa izan zen. Jende asko erakarri zuen dantza saioa amaitu eta Peñagarikano eta Lizasoren bertsoak izan ziren entzungai, eta iluntzeko erromeriak eman zion aurtengo jaiiei amaiera.



Igandean herri kirolean aritu ziren izaskundarrak bi taldetan banaturik. Txuriek irabazi zuten. I.TERRADILLOS



Jende asko izan zen herri kirolak ikusten. I.T.



Peñagarikano eta Irazu aritu ziren bertsoetan. HITZA



Potxin eta Patxin pailazoan saioan gustura egon ziren bikiak. I.T.



Alurr dantza taldeko gazteboak aritu ziren atzo. I.TERRADILLOS

hitza

lagunen txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZaren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

BERROBI ▶ KULTUR ASTEA

Kultur Astean buru-belarri sartuta daude

Sukaldaritza, ikuskizunak, kirola... askotariko emanaldiak eskuragarri



Liburutegian gustura egon ziren Antoninoren kontuekin. I. TERRADILLOS

JAIONE ASTIBIA

Atzo hasi zen Berrobin Kultur Astea: aurten hogeita bosgarrena. Eta larunbata bitarte, modu eta adin guztietarako ekitaldiz hornituta egin ere.

Hasiara, atzo goizean eman zioten, gaur eta bihar ere ikusgai egonen den erakusketa irekiz. Udaletxeko batzar aretoan jarrita daude, herrian helduek nahiz haurrek ere, egin dituzten eskulan ikastaroetan egingo dako lanak: koadro eta pintu-

rak, loreontzi eta pitxarrak, aterkiontzia... Arratsaldean ere zerikusia eta zertan parte hartua izan zen, bai suziri eta buruhandiek, bai Antonino Apretaren abenturak entzunez eta baita iluntze aldeko Begi Gorri gaztetxeko mus txapelketan ere.

Gaur biharretan sukaldaritza ere egingen diote leku, Bide Ona elkartearen eta Felix Belauntzararen eta Ikatza tabernako Karmen Dorronsororen, ariko dira kazuela tartean

EGITARAU ▶

GAUR, ASTEARTEA

16:00etatik 18:00etara. Eskulan erakusketa, udaletxeko batzar aretoan.
18:00etan. Sukaldaritza erakusketa, Bide Ona elkartearen: Felix Belauntzararen.

BIHAR, ASTEAZKENA

18:00etan. Sukaldaritza erakusketa, Bide Ona elkartearen: Karmen Dorronsoro.

ETZI, OSTEGUNA

17:30ean. Urreburuko gaztetxoen pilota partiduak.
18:00etatik 20:00etara. Eskulan erakusketa.
21:30ean. *¿A donde va esa loca?* antzezlanaz Solastokin.

ETZIDAMU, OSTIRALA

17:30ean. Eskolako ikasleen emanaldia, Etxolan.
Ondoren. Literatur Lehiaketako sari-banaketa.
Jarraian. Buruhaundiak.

MAIATZAK 21, LARUNBATA

17:00etan. Toka txapelketa.
17:30ean. Pirritx eta Porrotx pailazoan *Patata, patata* emanaldia, pilotalekuan.
19:15ean. Txakoli dastaketa, udaletxe aurrean.

eta ondoren prestatutako jakiak zozoketatu egingen dituzte.

Hurrengo egunak, ikuskizunak beteta heldu dira, beraz, eta baliatzea komeni: antzerkiak, pailazoak, musika...

ARESO ▶ LAUNAKAKO SOKATIRA



Aresoko taldeko kide batzuk, prestaketa saio batean. J. ASTIBIA

Areso B taldea azken finalerako sailkatu da

Zamudion jokatu dute finala, hurrengo larunbatean; Areso A ere joanen da, ordea

J. ASTIBIA

Lehenko larunbatean jokatu zuen Aresoko sokatira taldeak aurtengo denboraldiko aurreneko txapelketa: Getxoko Fadura izan zen eta bi talde ordezkari izanik, bat, Areso B taldea finalerako sailkatu egin zen.

Sailkapeneko saio honetan, launakako 300 kilokotan parte hartzen ari diren hamabi taldeak bi multzotan banatu zituzten eta multzo bakoitzean, aurreneko hirurak sailkatu. Horien artean gelditu zen Aresoko B taldea, Etxetxikia, Artola, Olazabal eta Arraras tiratzaileekin. Beraz, hurrengo larunbatean, finalerako txartela seguru dute eta hantxe izanen dira Zamudioko parkean egingen den azken txanpan, garaikurra irabazteko prest,

«saria ez baita txapela izaten, txapelketa honetan», argitu zuten atzokoan.

A taldeak, berriz, ez zuen sailkatzerik lortu, izan ere, azken orduan taldea osatzeko arazoak izan omen zituzten eta, atzo beraiek azaldu zuten. Getxoko taldeak «utzi» zien tiratzaile bat, Baraibarren ordez aritzeko. Baina, hala ere, Otermin anaiek eta Loiarterekin batera ez zuten aurrera egiterik lortu. Dena den hauek ere, Zamudioko saiora joanen dira, 4., 5. eta 6. lekuak lehizatzen.

Argitu zuten, behin lauko bat tiralari zehatzekin eratu, batetik bestera igarotzea ez omen da libre, baina bai taldeko «berriak» sartzea. Beharrean aurkituz gero, prestatuta omen daude gainerako taldeak ere.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Alegia. San Joan kalean 161 m2-ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.
Anoeta. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Berokuntzarekin.

Egoera onean.

Ataun. San Martin. 2 logela. Berritzeko. 75.125 euro!!

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisua, trasteleku eta garajearekin.

Donostia. Sagües auzoan etxebizitza salgai, igogailuarekin, eguzkitsua.

Ibarra. San Ignazio auzoan. Etxebizitza berokuntzarekin.

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ikaztegieta. 6 etxe abikiren eraikuntza berria.

Informazio pertsonala.

Irura. Ibai aldera. 3 logela eta bi bainugela. Trasteleku eta garajearekin.

Ezin hobeto.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko modukoa !!!

Tolosaldea. Eraikuntza berriko

etxe bifamiliari zoragarria salgai.

Terraza eta lorategiarekin.

Ikusgarria !!!

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

Tolosa. Korreo. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berokuntza. Sartzeko moduan. 168.285 euro.

Tolosa. Nagusia. Pisu polita, 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugelarekin. Berokuntzarekin. Egora oso ona.

Gazteentzat egokia!!

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Plaza Zaharra. Eraikuntza berria. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Igogailua eta berokuntzarekin.

Tolosa. Amaroz auzoan 3 logelako etxebizitza salgai igogailuarekin.

Tolosa. Zezen-plazan, 87 m2-ko

etxebizitza berritzeko,

igogailuarekin.

Tolosa. Erdialdean. 130 m2-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa !!!

Tolosa. Nafarroako etorbidean guztiz berritutako 3 logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

Txarama inguruan. 100 m2-ko etxebizitza terrazarekin, egongela su bajuarekin, terrenoa eta garajearekin. Oso egoera onean.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntzan, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi bainugela. Egongela ederra.

Ezin hobeto!!

Tolosa. Iurre. 3 logela eta 2

bainugela. Garajea aukeran.

Egoera bikaina!!

Tolosa. Zumalakarregi ibiltokian, 101 eta 109 m2-ko bi etxebizitza bikainak. Estreinatzeko, erabat berritua izan ondoren. Kalitate oso onak.

Igogailu eta berokuntzarekin !!!

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean.

124 m2-ko etxebizitza konpontzeko garajearekin.

Tolosa. San Frantzisko. 46 m2-ko lokal komertziala.

Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatua dagoen taberna salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel.

Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea.

Garajea alokairuan.

Villabona. Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Villabona. Etxeondo. Pisua garajearekin. Pisua 3 logela eta 2 bainugelarekin. Garajea 50 m2-koa,

karabanentzat egokia

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berrobi. Kultur Astea: Felix Belaunzararen sukaldaritza erakusketa 18:00etan Bide Ona elkartearen. Eskulan erakusketa 16:00etatik 18:00etara.

Irura. Kultur Astea: jubilatuen ibilaldi neurtua 16:15ean plazatik abiatuta; autoestimari buruzko hitzaldia 17:30ean Zaharren bitokian; ondoren *luncha* eta jokoetako sari banaketa. Larunbateko herri bazkarirako txartelak Estankoen eta Trinketearen 15 eurotan (haurrek 9 euro).
Tolosa. Iker Uson Aldundiko aholkulariak *Elkarlan proiektuak* hitzaldia emango du, gazteentzako hitzaldi zikloen barruan. Kultur Etxean 20:00etan.

Tolosa. Egoki tabernak gaur 19:30ean irekiko ditu atek berrikuntza lanen ondoren. Jende guztia zerbaite hartzera gonbidatuta dago.

Tolosa. Elikadura eskubideaz Carlota Merchanen hitzaldia bihar 20:00etan Kultur Etxean.
Villabona. Askagintzako Txus Kongilen hitzaldia Gaztebixean 19:00etan.

ZINEMA

Tolosa. *El hundimienta.* 19:30ean eta 22:30ean Leidor zineman. Ikuslearen eguna.

Baserritarren eguna

TOLOSALDEA ▶ Eskualdeko hamabi herritan era batera edo bestera ospatu zuten San Isidro eguna; bazkariak eta hamaiketakoak izan ziren gehienetan



Belauntzako Bentan ederki bazkaldu zuten igandean herriko baserritarrek. HITZA

ERREDAKZIOA

Baserritarrek ez dute huts egiten urtero maiatzaren 15ean. Egun seinalatua dute egutegian. San Isidro, bere zaindaria. Eta urtero egun hori behar bezala ospatzeko hainbat ekitaldi antolatzen dituzte.

Aurten —HITZARA iritsitako informazioaren arabera— Tolosaldeko 12 herritan izan dira



Gaztelunn jende asko bildu zen hamaiketakoak egiteko. INIGO TERRADILLOS

horrelako ekitaldiak. Altzan eta Tolosan bezperara aurreratzea nahiago izan zuten, igandea libre uzteagatik nonbait. Herenegun zen San Isidro eguna eta Abaltzisketan, Asteasun, Belauntzan, Berastegin, Elduainen, Gaztelun, Ibarren, Iruran, Orendainen eta Zizurkilen behar bezala ospatu zuten. Eguraldia lagun, jende asko bildu zen ekitaldietan, baserritarrek gehienbat.

Bazkariak eta hamaiketakoak izan ziren horietako herri gehienetan. Altzan afaria egin zuten bezperan. Argazkietan Belauntzako Bentan egindako bazkaria eta Gazteluko Ostatuan egindako hamaiketakoak ikus ditzakezue. Jendea eta apetitoa ez ziren falta.

Baina, jan kontuez aparte, zaindariaren omenezko mezak, herri kirolak, bertsoak eta musika saioak ere izan ziren gehienetan. Asteasun eta Zizurkilen idi probak izan ziren, adibidez. Abaltzisketan, Berastegin, Ibarren eta Tolosan prozesioak eta bedeinkapenak —abereak, soroak, baserritarrek— mezaren ondoren. Musika aldetik berriz, trikitixa izan zen nagusi baserritarrek antolatutako ekitaldietan.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Emilio Salaberria (Villabona). Zorionak. Amnistia eta askatasuna.



URTE ASKOAN

Ander Uranga (Tolosa).

Atzo 9 urte.

Etxekoen partetik.



URTE ASKOAN

Nabil (Tolosa).

Gaur 7 urte.

Zorionak lehoi errege



URTE ASKOAN

Luisa Jauregi (Gaztelu).

Gaur 91 urte. Zorionak eta egun

ona pasa familia osoaren partez.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... **tartea**

zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletzeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!